

Aurkezpena

Eduardo Alava, Iñigo Alava, Martin Etxeita eta Iñigo Larizgoitia gara proiektu honen abiarazleak. Sortuko dugun enpresak "PERCEPTION" du izena eta gorreria duten pertsoneri dago zuzenduta. Ekoiztuko dugun ondasuna betaurreko bat izango da, zeinak mikrofono baten bidez hautematen dituen hitzak proiektatuko dituen kristalean. Hitz horiek, errealitate areagotu batean bezala azalduko dira betaurrekoaren erabiltzaileen begi-bistan. Fabrika Gasteizeko industrialdean egongo da.

Orain arte, gorra gai izan dira zeinu-hizkuntza ez dakiten pertsonekin komunikatzen ahoskatzean haien ezpainetan sortzen diren mugimenduetan erreparatzen. Hala ere, Sars-Cov-2-aren pandemia dela eta, musukoa erabili beharrak gorrei ahoskatzen duguna ikustea galarazten die. Gasteizen, esate baterako, bazegoen okindegi bat non bi emakume lan egiten zuten eta bat ia gorra zen. Musukuekin bezeroak ulertzeko gai ez zenez gero, okindegia itxi egin zuten.

Gainera, pandemia amaitzen denean arazoak ez dira bukatuko. Badaude momentu ugari zeinetan ahots bat ulertzeko ezin ditzakegun hitz egiten ari diren ezpainak begiratu: dokumental bat ikustean, whatsappeko ahots mezu bat jasotzean, beste gela batean dagoen norbaitek deitzen gaituenean... Hori dela eta, ziur gaude pandemiaren ostean gure betaurrekoak saltzen jarraituko dugula.

